

DIRU-ITURRIAK

Gure zerbitzu edo ekimen hau guztiz dohainik izango da. Azkenean, helburu nagusia zakar gutxiago sortzea da eta ez diru-sarrera bat lortzea. Beraz, bertako produktu guztiak, borondatez jarritakoak izango dira. Ekimen honetan aurre ikusten dugun inbertsioa ez da handia izango, izan ere, behar ditugun materialak; ontzi batzuk eta etxetxo bat izango dira. Lehenbiziko hori elikagaiak gordetzeko da, bigarreneko etxetxo hori berriz, ontziak jartzeko leku izango da, gehien bat horien mantenu ona bermatzeko eta elikagaiak zein ontziak lehor egoteko, busti gabe. Nahiz eta aurreikusitako inbertsioa handia ez izan, ekimena guztiz berritzailea izatearekin, herriarentzat eta udalarentzat onuragarria izango da; herria ezaguna egin daitekeelako, ospe ona lortuz. Beti ere, beste herri batzuetara zabaltzeko helburuarekin. Orduan, diru inbertsio txiki hori udalari eskatuko genioke.